# UR LASAIETAKO ARAUDIA

INDARREAN 2018ko maiatzaren 8tik

# Ur Lasaietako Araudia

## AURKIBIDEA

I KAPITULUA: ARAU NAGUSIAK

1.go Art.- Ur lasaietan lasterketak lerroan……………………………….………..…3

2.Art.- Antolakuntza………………………………………………………………3

3. Art.- Estropaden sailkapena………………………………….…………....3

II KAPITULUA: ONTZIAK

4. Art.- Ontziak…………………………………………….………..….3

5.Art.- Ontzien mugak… ……………………………………………….…3-4

6.Art.- Eraikuntza……………………………………………….……4-5

7.Art. Ontzien Kontrola…………………….…………………………….….5

8.Art.- Segurtasun Ekipamendua…………………………………………….5

III KAPITULUA: TXAPELKETEN ANTOLAKETA

9.Art.- Kategoria eta distantziak ……………………….…..............................6-7

10.Art.- Ontzien zenbaketa……………………………………...……………7

11.Art.- Ofizialak……………………………………………………….…..7-8

12.Art.- Ofizialen funtzioak….……………………………………….……8-11

13. Art.- Gonbidapenak……………………………………………..……..11

14.Art.- Izenemate orriak………………………………………………11-12

15.Art.-Izenemateen harrera eta programak…………………….………..………..12

16. Art.- Izenemateen aldaketak eta alboraturikoak…………………..………..12

17.Art.- Talde buruen bilera Teknikoa……………………………………..13

18.Art.- Proben ordenean aldaketak………………………….……..……...13

IV KAPITULUA: LEHIAKETA ARAUAK

19.Art.- Irteerak………………………………………………..……...13-14

20.Art.- Etenaldiak Irteeran……………………………………..…..……14

21. Art.- Estropada eremeuko markak eta seinalizazioa……………….…….…14-15

22.Art.- Ibilbidea……………………………………………………………14

23.Art.- Ziabogak………………………………………..……………….16

24.Art.- Aurreratzea……………………..………………………….……16

25.Art.- Elkarjotzeak eta apurketak…………….……………………...........…16

26.Art.- Abantaila edo laguntza jasotzea……………………………..…16-17

27.Art.- Helmugak……………………………………………….……....17

28.Art.- Itxiera Kontrola…………………………………………………17

29.Art. Berdinketak………………………………………………………….………..…18
30.Art.- Partehartzaileei Argibideak…………………………………....……….....18
31.Art.- Deskalifikazioa……………………………………………….……..…..18-19
32.Art.- Serieak eta finalak……………………………………….……….….19-22
33.Art.- Serieak eta finalak Euskadiko Abiadura Txapelketarako……......…….22-28
Azken Xedapenak……………………………………………..………..…....28-29

# I KAPITULUA

# ARAU NAGUSIAK

### 1.go Art.- Ur lasaietan lasterketak lerroan.

Ontziak lerroan ipinita irteera ematen zaien lehiaketak dira, beti ur lasaietan, oztoporik gabeko distantzia bat ibiliaz, ahalik eta denbora gutxienean eta arauak beteaz.

### 2. Art.- Antolakuntza.

Txapelketa orok, Lehiaketa Batzorde bat izan beharko du, EKF-tzako Lehiaketako araudi nagusi eta teknikoak zehazten duen modura osatua.

Txapelketa baten antolatzaileak, EKF-tzako Lehiaketako araudi nagusi eta teknikoak zehazten dituen baliabideez hornitzeko betebeharra du.

### 3. Art.- Estropaden sailkapena.

Distantziak kontutan izanik, estropadak honela sailkatzen dira:

Abiadurakoak lerroan kaleetan, Sprint: burutu beharreko distantziak 1.000 metroak gainditzen ez dituenean eta ur lasaietan burutzen denean. Modu berean, erlojupekoa eta kaleeetan zehar burutzen denean 2000mtako distantzia, Sprint ere izendatzen da.

Iraupen luzekoak lerroan: burutu beharreko distantziak 1.000 metroak gainditzen dituenean eta 5000m-taraino, ur lasaietan burutzen denean.

# II KAPITULUA

# ONTZIAK

### 4. Art.- Ontziak.

Ontziak arauzkoak izango dira, Lehiaketetako Araudi Nagusi eta Teknkoak 7. Artikuluan ezartzen dituenak.

### 5.Art.- Ontzien mugak.

5.1. Ur Bareak- Sprint

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| K-1 | K-2 | K-4 | C-1 | C-2 | C-4 | C-1 SUP |

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 520 | 650 | 1100 | 520 | 650 | 900 | 428 | Gehienezko Luzera Cm |
| 12 | 18 | 30 | 16 | 20 | 30 | | Pisuaren gutxiengoa Kg |

5.2. Ur Bareak- Sprint Paracanoe

| Kayak | Va'a | |
|---|---|---|
| 520 | 730 | Gehienezko Luzera Cm |
| 50 (1) | | Gutxiengo Zabalera |
| 12 | 13 (2) | Pisuaren gutxiengoa Kg |

Oharra: (1) Ontziaren oinarri longitudinalarekiko 10cm-tara neurtua

(2) kaskoa, ama eta iatco-a barne

Neurri guztiak zentrimetroka izango dira eta pisua kilogramotan.

5.3. Ez da onartzen ontziei substantzia arrotzak eranstea, aurkariekiko abantaila suposatuko badu.

5.4. Publizitate material guztia, lehiakidearen identifikazioa eragozten ez duelarik ipini behar da, lehiaketaren garapenean eraginik sortu gabe.

5.5. Taldeak beraien materialaren erantzule dira.

**6.Art.- Eraikuntza.**

**Kaskoa:**

Kayak eta Canoaren sekzio eta lerro longitudinalek konbexuak (soilik horizontal eta bertikalak) izan behar dute.

Kayaka, ardatz longitudinala jarraituz simetrikoki eraiki beharko da.

**Ontzigaina:**

Ontzigainak ezin du inungo puntu horizontalean, 1.go bainuontziko ardatz frontaleko punturik altuena baino altuago egon.

Ontzi batek edo lehiakide batek, lehiatzen ari den bitartean, denbora errealean, bere jardunaren informazioa errazten duen aparatu batez ekipaturik egon liteke, telebistan edo ekitaldi batean zehar ikus dedin.

Lehiakideak, behin lasterketa amaiturik, aparatuak emaniko datuak aztertzea izango du, baina inolaz ere, lasterketan zehar, denbora errealean erabili informazioa eskuratzeko.

Ez dago baimendurik ontziari inolako elementu edo sustantziarik gehitzea, lehiakideari bidegabeko abantailik emango diona, aurkariekiko.

Kayakak:

Ontziko, zuzendaritza lema bat onartzen da. Lemaren gehienezko lodiera 10mmkoa da, K-1 eta K-2etan, eta 12mmkoa, K-4en kasuan.

Ontziak diseinaturik egon behar du, Kayak-aren eserlekua ontzi barruan gera dadin.

Kayak-ek, lemaren aurrekaldean, algentzako deflektorea eramatea izango dute.

Canoak:

Kanoa, simetrikoki eraikiko da, ardatz longitudinala jarraituz.

Zuzendaritz lemak edo antzerako edozein eranskin, Canoaren noranzkoa kontrolatzen dutenak debekaturik daude.

C-1 eta C-2-ak guztiz irekiak egon behar dute. Gutxiengo irekiera luzera 280cm delarik. Ontziaren alboko ardatza gehienez 5 cm zabal litekeelarik, definituriko irekieran zehar.

Ontziak gehienez, hiru errefortzu barra izan ditzakeelarik gehienez, bakoitzak 7cmko gehieneko zabalera izan delakeelarik.

C-4-a guztiz irekia egon liteke. Irekiera luzera minimoa 390cm delarik. Eta ontziaren alboko ardatza 6cm zabal liteke, adieraziriko irekieran. Ontziak gehienez 4 errefortzu barra izan ditzake. Bakoitza gehienez 7cm-ko luzeraduna.

Lehiakideak, materialak ezarririko baldintza teknikoak betetzen dituela baieztatzen dituenaren erantzule dira.

**Hobekuntzak:**

Aurrez adierazitakoarekiko edozein hobekuntzek, Nazioarte mailak ICF-ko araudiak ezarritakoa bete beharko du.

**7.Art. Ontzien Kontrola.**

Kayak edo Canoa baten luzera, proa eta popako punturik urrunenetatik neurtuko da. Popa eta proako babesgarriak egonez gero, neurrietan gehiturik egon beharko dute. Kayak-aren luzapen bat izanez gero lema, ez da kayak-aren luzera neurriak kontutan hartuko.

Behin kayak-a edo Canoa neurtuak izan ondoren, lehiaketa aurretik ez da inolako aldaketarik egitea onartzen.

Finkatu gabeko eranskin gutziak kendu egingo dira. Dispositibo iraunkorrak, belaunekoak edo bestelako beharrezko elementuak, ontzira lotuta egon beharko dute.

Lehiaketa Batzordearen erabakiarekin bat, ontzi kopuru batek, oharkabez aukeratuak, lasterketa amaitu eta berehala, berriro ontzi kontrola igaro beharko dute.

Inola ere ez, palek ezingo dute ontziei loturik egon. Lehiakideari pala apurtuz gero, ezin izango du beste bat erabili.

**8.Art.- Seguntasun ekipamendua**

Alebin eta infantil mailetarako, derrigorrezkoa da, salbamendu jaka homologatua erabiltza eta gomendagarria, estropada eremuak horrela eskatzen duenean, gainontzeko kategorietarako.

## III KAPITULUA

## TXAPELKETEN ANTOLAKETA

**9.Art.- Kategoria eta distantziak**

**9.1. Lehiaketetako Araudi Nagusi eta Teknikoko 7.Art. (ontziak) eta 23.Art. (kateagoriak) ezarritakoaren arabera eta ICF-ko Canoe Sprint-eko araudiko 6.art.-kuluarekin bat eginez, proba ofizialak honakoak dira:**

| | | |
|---|---|---|
| **Gizonezkoak eta Emakumezkoak** | **K-1, K-2, K-4, C-1, C-2, C-4 eta C1-SUP** | **200, 500, 1000 metro** |
| | | **2000, 3000, 5000metro** |

**9.2. Lehiaketetako Araudi Nagusi eta Teknikoan eta ICF-ko Canoe Sprint-eko araudiko 6.araudiarekin bat eginez, Paracanoeko probak honakoak dira:**

| | | |
|---|---|---|
| **Gizonezkoak eta Emakumezkoak** | **Kayak- KL-1, KL-2, KL-3**<br><br>**Va'a- VL1, VL2, VL3**<br><br>**Especial. KS1, VS1** | **200, 500, 1000 metro** |
| | | **3000, 5000metro** |

**10.Art.- Ontzien zenbaketa.**

Kayak eta canoek, xafla bertikal ez-gardena edo oholtxoa, zenbaki beltz eta atzekalde txuriduna eraman beharko dute, kalea adierazten.

Oholtxoak, ontziaren ardatz longitudinalaren gainkaldeko atzekaldean ipiniko da kayak-etan eta canoan, aurrekaldean.

Oholtxoen formatua 20cm altueran eta 18cm zabaleran delarik.

Oholtxoen zenbakien formatua, 15cm altueran eta 2,5cm zabaleran lerroak beharko du izan

**Kayak eta Canoek, oholtxo euskarria eta oholtxoa piraguara finkatuko duen sistema eraman beharko dute derrigor.**

Bularrekoak, soilik, partehartzailearen bizkarraldean kokatuko dira.

**11.Art.- Ofizialak.**

Txapelketak, jarraian adierazten diren ofizialen gainbegiradapean ospatu behar dira:

**11.1. Epailea**

Epaile Nagusia

Epaile Nagusiaren Laguntzailea

Irteera Epailea/k

Lerrokatze Epailea/k

Ibilbideko Epailea/k

Ziaboga Epailea/k

Epaile Kronometratzailea/k

Helmugako Epailea/k

Ontzi kontrol Epailea/k

Lizentzia eta uniforme control Epailea/k

Doping Epailea/k

### 11.2. Antolatzaileak

Lehiaketa Zuzendaria

Lehiaketako Antolatzaile Teknikoa

Esataria

Zerbitzu medikuen Ofiziala

Segurtasun Ofiziala

Txapelketa, gutxienez hiru ofizialekin, horietako bat, Epaile Nagusi gisa arituko delarik, ospatuko da.

### 11.3. Lehiaketa Batzordea

Lehiaketako Gehiengo Autoritate, Lehiaketa Batzordeak izango du. Eta Lehiaketako araudi nagusi eta teknikoaren 51. Artikuluak ezartzen duenaren arabera egongo da eratua.

Egoerak onartzen badu, pertsona bakar batek, aurrez aipaturiko funtzio bat baino gehiago izan ditzake.

Autorizaziorik gabeko pertsonak, lehiaketako ofizialen gunera sarrera debekatua izango du, Lehiaketa Batzordeak edo epaile batek deitua izan ez bada.

## 12.Art.- Ofizialen funtzioak.

**Epaile Nagusia:** Ospatzen ari den lehiaketan aurre ikusi gabeko gora-behera guztietan parte hartu eta erabakia hartu beharko du. Emaitzak argitaratu aurretik, ofizialtasuna eman beharko die. Lehiaketa amaiturikoan EKF-tzara emaitzen akta prestatzea eta bidaltzea dagokio.

**Epaile Nagusiaren laguntzailea:** Epaile Nagusiarekin lan egingo du eta txapelketako lan administratiboez arduratuko da. Txapelketan zehar beharrezkoak diren inprimakiak beteko ditu. Beharrezkoa denean Epaile Nagusia ordezkatuko du.

**Lehiaketa Zuzendaria:** lasterketak gainbegiratu beharko ditu eta ezarririko programa betetzen dela eta beharrezkoak ez diren atzerapenik gerta ez daitezenaren arduraduna da. Arduradun diren ofizialei abisatu beharko die, puntualki, lasterketa berri bat hasi aurretik. Lehiaketari dagokion alor administratiboa (Programa, zozketak emaitzak, dokumentazio teknikoa, ontzi kontrola, prentsa, kexak, etab.) behar bezala funtziona

dezanaren arduraduna izango da. Era berean, esatariak lasterketei buruz beharrezkoa den informazio guztia ematen duela ziurtatu behar du, hala nola, irteera ordenak, parte hartzaileen izenak, emaitzak.

**Antolatzaile teknikoa:** lasteketa guneko material elektronikoaz ( irteera sistema automatikoa, fotofinish sitema eta kronometrajea, markagailua, irrati konexioak, ontzi trafikoa lasterketa aurretik eta ondoren, ontzien kontrola, etab.) arduratuko da. Epaile Nagusi eta Lehiaketa Zuzendariari lagunduko die.

**Irteera Epailea:** irteerari dagokion guztiaren inguruan erabakiak hartzen ditu. Bera izango da, irteera faltsua izan denaren erabakia hartzearen arduradun bakarra. Bere erabakia behin betikoa eta apelaezina izanik.

Irteera señalea egonera onean dagoen ziurtatuko du. Bere esku dauden baliabideen bitartez, helmugako epaileekin komunikatu beharko du eta helmugako epaileengandik prest daudenaren eta dena prest dagoenaren adierazpena jaso ondoren, partehartzaileei dagokien lekua adieraziko die eta irteera emango die Araudiek ezartzen dutenaren arabera.

**Lerrokatze Epailea:** epaile honen egitekoa, parte hartzailea ahalik eta denbora gutxienean irteera gunean ezartzea izango da, jazkera kontrolatzea eta ontzien tablilla eta bularrekoak ere. Ontzi guztiak lerrokatuak dauden unean, Irteera Epaileari adieraziko dio bandera txuri bat altxeaz.

**Ibilbideko Epaileak:** ibilbidean zehar arautegia betetzen dela ziurtatuko dute. Arauak hausten badira, Epaile Nagusiari jakinaraziko diote, eta azken honek erabakiko du, zein parte hartzaile dagoen deskalifikaturik. Arau hausteren bat ikusiko balute, bandera gorri bat altxatuko lukete probaren ondoren eta hurrengo probaren aurretik informe bat igorriko lukete.

Ez bada arau hausterik egon, bandera txuria erakutsiko du epaileak.

500 eta 1.000 metrotako lasterketetan, epaileek motordun ontzi batetik jarraituko dituzte. Proban zehar askatasun osoa izango dutelarik. Ontzi horren barruan, epailea eta ontziaren gidariak gain ezin izango du inortxo ere gehiagok egon. Salbuhespen gisa, lehiaketa guneak horrela ahalbidetzen duenean, Lehiaketa Batzordeak, epaileek lehiaketa,helmugako lerro atzetik, ur ertzetik, jarraituko duten edo ez erabakitzea izango dute.

Ibilbideko Epaile bakar batek ere, ez du 200mtako lasterketa jarraituko. Irteera lerroaren atzean ipiniko dira, ontzietan, edo ur ertzean, helmugako lerroaren atzean.

Iraupen luzeko probetan, parte hartzaile ugarikoak, epaile bat baino gehiago izendatu litezke. Epaile horietako batek, posible bada, lasterketa burua jarraituko du, gainontzeko parte hartzaileei eragotzi gabe.

Oztoporen bat egonez gero, epaileak lasterketa geratzea izango du, parte hartzaile guztiei aurreratuz eta bandera gorri bat astinduaz edo soinu seinale bat erabiliaz, ontzi guztiak paleatzeari utzi arte. Ontzi guztiek irteera gunera bueltatu beharko dute. Epaileak arau haustearen berri eman beharko dio berehala Lehiaketa Batzordeari.

**Ziaboga Epailea:** proba bat, ziaboga bat edo gehiagorekin ospatzen denean, dagokien epaileek, maniobra hau ongien ikusten den gunean kokaturik egon beharko dute.

Ziaboga epaileak, araudiaren arabera biratzen dutela baieztatuko du, ziaboga igaro duten guztiekin zerrenda bat osatuaz.

Proba amaitu bezain laster, Ziaboga Epaileak, Epaile Nagusiari ziaboga igaro dutenen zerrenda eramango dio eta arau hausteren bat egin duten adierazi.

**Helmugako Epaileak:** helmugako zeharkatu duten kirolarien ordena erabakitzen dute. Kontrol dorrean egongo dira kokatuta epaileak. Helmugaratzen ordenarekin adostasunik ez badago, helmugako bideo eta argazkirik ez badago, gehiengo sinplearekin hartuko da erabakia. Epaile Nagusiarn botua erabakigarria izango da, berdinketa egonez gero.

Helmugako foto-finish-a egonez gero, amaierako erabakiak horrekin bat etorri beharko du. Epaileen erabakia behin betikoa izango da.

**Epaile Kronometratzaileak:** denboren erregistroaren arduradunak dira. Gelditze dipositibodun kronometroen bidez hartuak izango dira denborak.

Proba bakoitzaren aurretik, Kronometratzaileen Nagusiak, kronometroak zeroan ipiniak izan diren baieztatuko du eta kronometratzaileen artean lana banatuko du.

Proba bakoitzaren amaieran, denbora ofizialak eta gainontzeko Epaile Kronometratzaileenak alderatuko dituzte.

Proba bakoitza gutxienez, bi kronometro bidez kontrolatua izango da. Bi kronometroek denbora bera erregistratzen ez dutenean, denborarik txarrena izango da kontutan eta egokitzat hartuko da.

**Ontzi Kontrol Epaileak:** Lehiketa Zuzendariari lagunduko diote, parte hartzen duten ontziak baieztatzeko. Araudiak ezartzen dituen mugak betetzen ez baditu, lehiaketatik kanporatua izango da.

**Lizentzia eta uniformeen Kontrol Epaileak:** Palisten identitatea baieztatzeaz arduratuko dira, lehiaketa lizentzia indarrean duela ziurtatuko dute eta irteera zerrendan agertzen den berbera dela baieztatu. Hala nola, ordezkatzen duen klub edo Federazioko uniformea zuzena dela baieztatuko dute.

**Doping Epailea:** Doping-az arduratzen den Mediku Ofizialari laguntzeaz arduratuko da, Antidoping kontrolaren prozesuan zehar, kontrol hori igaro behar duten parte hartzaileek hogeita hamar minututan gehienez igarotzen dutelarik, behin jakinarazpena jaso ondoren.

**Esatari Ofiziala:** Lehiaketa Zuzendariaren argibideei kasu eginez, irteera bakoitza iragarri beharko du, irteera ordena jakitera eman eta lasterketan zehar partehartzaileen kokapenaren berri eman. Eman lasterketa amaiturik, emaitzak iragarri beharko ditu.

**Komunikabideen Ofizial Kreditatua:** Prentsa, irrati eta telebistako ordezkariei lasterketaren inguruko beharrezkoa den informazioa luzatu beharko die. Lehiaketa Zuzendariari eskatuko dio informazioa, ahalik eta azkarren luzatuaz emaitza ofizialak.

**Segurtasun ofiziala:** Lehieketa Batzordeari, beharrezko seguratsun neurriez aholkatzearen ardura izango du eta betetzen direla baieztatzeaz.

**13. Art.- Gonbidapenak.**

Lehiaketa bateko gonbidapenak jarraian adierazten diren datuak izanbeharko ditu:

a) Lehiaketa data eta tokia.

b) Ibilbidearen kokapena eta planoa.

c) Proben kategoriak eta distantziak.

d) Probnen irteera ordena eta ordua.

e) Uraren gutxienezko sakontasuna

f) Egonez gero, eskeinitako dirulaguntza zehatza.

g) Antolatzailearen helbide eta telefonoa.

h) Partehartzaileentzako interesgarria izan daitekeen bestelako informazioa.

i) Izenematea jasotzeko gehienezko epea, lehiaketa asteko asteartea izango da.

Gizonezko zein emakumezkoentzako lehiaketa kopuru berbera egongo da, bai kayak-ean.

**14.Art.- Izenemate orriak.**

Gonbidapeneko zehaztasunen arabera, izenematea ezin izango du, parte hartzailearen elkartea ez den beste organismo batek egin.

Klub batek, egoki deritozun palista eta ontzi kopurua inskribatuko ditu, titular gisa. Titular gisa agertzen ez diren ontziak froga batean, EZIN IZANGO DUTE PARTE HARTU.

Izenemate batek, beti ere honako datuak jaso beharko ditu:

Klub edo Federazio parte hartzailea.

Taldeak parte hartuko duen kategoria eta distantziak.

Palistaren genero, izen eta abizenak.

Taldeak (edo kasuan, Lurralde Federazioak) kreditaturiko Talde Buruaren izen abizenak. 18 urtetik gorakoa izan beharko du eta lizentzia indarrean izan beharko du, EKF-tzakoa edo RFEP gaiturikoa.

Palista bakoitzaren N.A.N. zenbakia.

Palista bakoitzaren kategoria

Erabiliko duen ontzi mota.

Klubak edo Federazioak lehiaketan erabiliko duen arroparen kolorea.

**15.Art.-Izenemateen harrera eta programak.**

Izen emateak, , lehiaketa bakoitzerako ezarririko datako 21:00h-ak baino lehenaldeko 21,00hak baina lehen helarazi beharko dira Federazio hontako idazkaritzara. Lehiaketa bakoitzerako adierazitako data eta ordua pasa ondoren, EKFtzara iritsitako izenemateak ez direlarik onartuko .
Izenematea eransten den inprimaki bidez egin beharko dira eta Federazio hontara emailez bidali., izenemate epea amaitzen den azken eguneko 21:00h-ak baino lehen. Epez kanpo iritsitako izenemate bat ezin izango da onartua izan.

Antolatzaileak, bidaliak izan zaizkion inzenemateak, jaso dituenaren hartu berri emango du.

Lehiaketa Batzordea osatzen den unean, beraien esku egongo da behin betiko programa, lehiakideen izenak emanez, hala nola, zozketen emaitzen berri emanez.

**16. Art.- Izenemateen aldaketak eta alboraturikoak.**

Izenemate aldaketak, antolatzaileak ezarritako ordutegian burutu beharko dira, Talde Buru Bilera aurretik, Epaile Nagusiari idatziz entregatu beharko zaizkio.

Parte hartzaile baten izenemate ezeztatzea behin betikoa da eta berriro izena ematea debekatua dago.

Izenemate titularreko eta ordezkoa ontzi edo distantzia bat edo bat baino gehiagotan, ezin izango du inolaz ere, beste ontzi edo distantzia bateko erreserba izan, txapelketa berean.

Kirolariaren Elkarteak edo Federazioak bere izenematea baieztatu badu, proban parte hartzera derrigortua dago.

Ontzi batek ez badu irteera hartzen eta partehartaileak/ek ez dute baliozko arrazoi bat, Lehiaketa Batzordeak onartua izan dena, inplikaturiko kirolaria/k deskalifikatuak izango dira txapelketa guztirako.

Izenemate eskubidea ez da itzulia izango.

## 17.Art.- Talde Buruen bilera teknikoa

Behin izenemateen aldaketa epea amaiturik burutuko da Talde buruen bilera. Bileran, antolatzaileak ibilbidea deskribatuko du eta txapelketari eragingo eragingo liokeen beste edozein gai. Epaile Nagusiak, lehiaketa programa deskribatuko du eta jasandako edozein aldaketa azalduko du.

## 18.Art.- Proben ordenean aldaketak.

Antolatzaileak, gonbidapenean bidalitako proben ordena errespetatzeaz arduratzen dira, hala nola, proba bakoitzaren arteko denbora tartea ere, Lehiketa programan aurkezturikoa. Ezin izango da inolako aldaketarik egin, Lehiaketa Batzordeak erabaki ez badu.

# IV KAPITULUA

# LEHIAKETA ARAUAK

## 19.Art.- Irteerak.

Irteerako Epaileak, partehartzaileen arreta erakarriko du **“ quedan diez segundos (10 segundu) para dar la salida”,** egoki kokaturik daudean irteera emango duelarik, tiro edo soinu intenso eta motz baten bitartez. “ya” hitzaren bidez ere irteera eman dezake.

Parte hartzaile bat, tiroa edo “ya” hitza baino lehen hasten bada paleatzen, irteera faltsu bat burutuko du.

Irteerako epaileak, irteera faltsua burutu eta berehala abisu bat eman beharko dio, araua hautsi duen partehartzaileari, bi irteera faltsu burutuz gero, probatik kanporatua izango da.

Irteera Epaileak emandako abisua eta jarraian dakarren kanporatzea, soilik, irteera faltsua eragin duen ontziari eragingo dio.

Lerrokatze prozesuan, Irteera Epailearengandik bigarren abisua jaso ondoren, irteera gune egokian ipintzen ez den eta gainontzeko kirolariak baino aurreratuago dagoen kirolaria, probatik kanporatua izango da.

Ontzi bakoitzari irteeran kokapen bat ezartzeko, zozketa bat burutuko da. Bat zenbakia, bigarren zenbakiaren ezkerretara egongo da kokatua, eta horrela, elkarren segidan.

Kanporaketak behar dituzten lehiaketetan, zozketa burutuko da, bakoitzerako independienteki.

Partehartzaileek, programak ezarririko orduan  irteeran kokatu beharko dute. Bertaratu gabekoak kontutan izan gabe emango da irteera.

Ontzien kokapen zuzena, ontziaren branka, irteera lerroan geratzen delarik izango da. Ontziek geldik egon beharko dute.

Iraupen luzeko lasterketetarako, Epaile Nagusiak, “Prest- Ya” hitzekin emango du irteera. “Ya” hitza, soini motz eta intentsu batez ordezkatua izan daitekeelarik. Behin lerrokaturik, “Prest” señalearekin, lehiakideak irteerako posizioaren bitartez prestatuko dira. Epaileak lehiakideen kokalekua egokia dela deritzonean, “ya” seinalea emango du eta soilik orduan, lehiakideek paleatzen hastea izango dute.

**20.Art.- Etenaldiak irteeran.**

Epaile Nagusiak irteera egoki bat, eteteko eskubidea du, pisuzko arrazoi bat izanez gero. Parte hartzaile guztiei berehala irteera gunera bueltatzeko agindu eta irteera berri bat emango du.

Partehartzaileek berehala utzi beharko diote paleatzerai eta agindu berriei itxoin.

Proba baliogabetuko balitz, irteera berri batetarako ezingo litzateke talde baten kideen osaketan aldaketarik egin.

Irauli ezkero, partehartzailea/k probatik kanporatuak izango da/dira, ezin izan badu/te, bere kabuz, kanpoko laguntzarik gabe, berriro ontzira igo.

**21. Art.-Estropada eremuko markak eta Seinalizazioa.**

Ziaboak 5 balizek seinalaturko dituzte gutxienez, gorriak edo horiak.

Irteera zein helmuga lerroak baliza gorriz seinalatu beharko dira, ibilbidearen kanpo mugak adieraziz.

**22.Art.- Ibilbidea.**

**a) Lerroko lsterketak-Sprint. 1000m, 500m eta 200, (2000m erlojupekoa)**

Lehiaketa hasi baina bost ordu lehenago, ibilbideak neurturik eta buien gainean bandera edo baliza nabarmenen bidez seinalaturik egon beharko du.

Estropada eremuaren luzera eta tarteko distantzia guztiak, topografo independiente aditu batek neurtu beharko ditu, eta egiaztatu beharreko plano batean jaso. Lehiaketa Batzordeak edozein unetan ikuskatzeko eskuragarri egongo da.

Irteera zein helmugako lerroak bandera gorriz markaturik egongo dira, lerroak, estropada eremuaren kanpo mugak mozten dituzten gunean.

Irteera zein helmugako lerroa, ibilbideko ardatz longitudinalarekiko perpendikularki egon beharko dute kokaturik.

Estropada eremua bederatzi kalez egongo da osaturik. Kaleak lerro zuzenean egon behar dute eta gutxienez, 9metrotako zabalera izan, inolako oztoporik gabe. Uraren sakonera, gutxienez bi (2) metrotakoa izango da. Kaleak buia edo flotatzaile bidez egongo dira markaturik. Buien arteko distantziak ezin du izan, 25metro baino gehiagokoa.

Azken buiak, 0 zenbakitik 9raino egon beharko dute markaturik. Zenbaketa, ezkerretik eskuinera joango da, zenbakia kontrol torretik argi ikusteko moduan kokaturik egongo delarik. Zenbakia daraman buia, partehartzilearen eskuinean geratuko da, bere ondotik pasatzen denean, eta berak ikusteko moduan egongo da. Helmugako lerrotik 1 metro lehenago eta 2 metro atzetik kokatuko da gehienez.

Jardunaldia telebistaz emanez gero, buien zenbakieta alderantziz egitea egongo da (eskuinetik ezkerrera).

Antolatzaileak, ICF-ak onarturiko foto-finish sistema izango du, eta kamara/VCR bideo sistema. Bi edo ontzi gehiagok helmugaratze estua izanez gero, foto-finish-aren emaitzaren kopia bat argitaratuko da emaitzen taula ofizialean.

Ahal den neurrian, antolatzaileak, irteera sistema automatikoa erabiliko du.

Ibilbideak zuzena behar du izan eta norabide bakarrekoa.

1000 eta 500metrotako probetan, Ibilbideko Epaileak, ontzi egoki bitartez jarraitzea izango du.

**b) Iraupen luzeko frogak. 1000m baino gehiago.**

**Iraupen luzeko frogetan**, helmugak 20metroko zabalera beharko du izan eta bi bandera edo baliza bidez seinalaturik egon beharko du. Epaileek, helmugako lerrotik ahalik eta gertuen ipini beharko dute.

1.000metro baino gehiagoko probetan, ziabogak onartzen dira. Kasu honetan, jarraian adierazten diren baldintzak beteko dira, posible den heinean:

a) Irteera lerro eta lehenengo ziabogako lehenengo bandera artean, lerro zuzen bate gongo da, eta gehienez 1850,5metroko luzera izango du.

b) Lehenengo ziabogako azken bandera eta bigarren ziabogako bandera artean, lerro zuzen bat irudikatuko da, gehienez 1750,5metroko distantzia egonez.

c) Bigarren ziabogako azken bandera eta hirugarren ziabogako lehenengo bandera arteko gehienezko distantzia 500metrokoa izango da.

d) Lasterketako gainontzeko tarteetan, “c” puntuko baldintzak aplikaturko dira (laugarren tartetik, hamabigarreneraino).

e) Ziaboga bakoitzeko radioak gutxienez 40,5metro neurtuko ditu.

f) Irteera zein helmuga, irteera dorre inguruan kokatuko dira.

g) Ziabogak, gutxienez, banderadun bost buiekin markatu behar dira. Banderak, diagonalki banatuak egongo dira, erdia gorriz eta beste erdia horiz.

## 23.Art.- Ziabogak.

Proba batek ziabogak dauzkanean, ziabogak ababor-erantz ( hau da, ordulariko orratzen kontrako zentzuan), egingo dira. Ibilbideak hala gomendatzen duenean, ziabogak estribor-erantz burutzea egongo da (ordulariko orratzen zentzuan).

Ziaboga bat igarotzerakoan, ibilbideko kanpokaldean doan partehartzaileak, barrualdetik doanari pasatzen utzi beharko dio, beti ere, barrutik doanak, bere proa, kanpotik doan ontziaren bainuontziaren ardatz frontala baino aurrerago badu. K-2 eta K-4ean kasuan, lehenengo bainuontzia izango da errerentzia. C-1en kasuan, partehartzailearen gorputza hartuko da erreferentziatzat. C-2n kasuan, aurreko palistaren gorputza hartuko da kontutan.

Parte hartzaile bat ez da kanporatua izango buia bat ikutzeagatik, beti ere, Ziabogako Epaileek abantail bat suposatu ez diola badiote. Ziabogak igarotzerakoan, ontziak, ahal den neurrian, buiek seinalaturiko ibilbidea jarraitzen saiatuko da.

## 24.Art.- Aurreratzea.

Kayak edo Canoa batek, proba bereko beste Kayak edo Canoa bat aurreratzen badu, aurreratzen duen ontziak, atzemandako ontziari ez trabarik eragitera derrigorturik egongo da.

Era berean, aurreratua izan den ontziak debekatua du atzetik etorri den ontziari kalte egiteko ibilbidea aldatzea.

## 25.Art.- Elkarjotzeak eta apurketak.

Partehartzaile batek, beste bat elkarjotzen badu edo kayak edo canoaren apurketa eraginez gero, lehiaketatik kanporatua izan liteke.

## 26.Art.- Abantaila edo laguntza jasotzea.

Debekatua dago abantaila hartzea edo proban parte hartzen ari ez den ontzi batenlaguntza jasotzea, edo bestelako medioen bitartez laguntzarik jasotzea. Ontzi ofizialetatik izan ezik.

Buietatik kanpo egon arren, txapelketan zehar, parte hartzen ez duten taldeek ezin dute ibilbidean zehar egon. Inolaz ere, helmugako lerroa igaro. Ez lehiaketako zentzuan, ez kontrakoan, bereziki, lehiatzen ari diren ontziak helmugaratzen ari diren bitartean.

Lehiatzen ari ez diren palistek, ospatzen ari den probako partehartzaileak berarien altuerara urbiltzen direnean, paleatzeari uzteko betebeharra dute.

Debekaturik dago, txapelketatik at dauden ontziek, momentu horretan partehartzen ar idiren beste ontzien ibilbide osoa edo zati bat jararitzea, estropada gunetik kanpo bada ere.

a) 1.000metrorainoko Probak eta 2000m erlojupekoa lerroan

1.000metrotarainoko probetan, partehartzaileek beraien kalean jarraitu behark odute irteeratik helmugaraino, kalearen erdikaldean mantenduaz. Partehartzaileek, ezin dute, beste partehartzaile batengana 5metroko distantzia baino gutxiagora urbildu. Ez eta beste lehiakidearen olatuari etekina atera. Ontzi bat, kale baten barruan desbideratzen bada eta ez badu zuzentzen, proban deskalifikatua izango da.

b) 1.000metro baino gehiagoko probak.

1.000metro baino gehiagoko iraupen luzeko probetan, partehartzaileek beraien ibilbidetik aldentzea izango dute, beti ere, gainontzekoa urkariei eragiten ez badie.

Iraupen luzeko frogetan, lehiakide bakoitza, soinuzko seinale baten bidez abisatua izango da (esterako kanpai bat), helmugako lerrotik igarotzen den azkeneko biran.

**27.Art.- Helmugak.**

Helmugako lerroa gaindituztzat ematen da, Canoa edo Kayak-aren brankak, partehartzailea piraguaren barruan dagoelarik, bi baliza gorriek irudikaturiko lerroa zeharkatzen denean.

Bi edo ontzi gehiagok aldi berean gainditzen badute helmugako lerroa, bukaerako sailkapen bera izango dute. Berdinketa bat gertatzen denean, eta postu horrek hurrengo lehiaketako fase batetarako sailkapena berarekin dakarrenean, hurrengo arauak aplikatuko dira:

a) Txapelketako hurrengo fasean nahikoa kale libre egonez gero, zozket bat burutuko da, lehiakideak zein probetara pasako diren zehazteko. Posible izanez gero, hamargarren kalea erabiliko da.

b) Nahikoa kale libre ez badaude, eguneko azken proba edo jardunaldi erdiko azken proba eta ordu batetara, inplikaturiko ontzien artean lasterketa berri bat ospatuko da.

c) Hauetariko proba batean berdinketa emanez gero, zozketa bidez erabakiko da emaitza.

Denbora segunduen milaren-ekotan hartu eta publikatu behar da.

**28.Art. Itxiera Kontrola**

Lehiaketa ezberdinetako Txapelketa oinarrietan ezarriko dira itxiera kontrol denborak.

## 29.Art. Berdinketak.

**Lehiaketa batean:**

Berdinketa kasuetarako, distantzia olinpikoko, taldeko ontzi haundienaren arabera egingo da, orden hau ezarriko litzatekeelarik:

1. 500m-tan, Lehiaketan dagoen ontzi haundienak markatuko du, gizonezkoak eta emakumezkoak tartekatuz.
2. 1000m-tan, Lehiaketan dagoen ontzi haundienak markatuko du, gizonezkoak eta emakumezkoak eta Kayak eta Canoa tartekatuz.
3. 200m-tan, Lehiaketan dagoen ontzi haundienak markatuko du, gizonezkoak eta emakumezkoak eta Kayak eta Canoa tartekatuz.

Honekin berdinketa haustea lortuko ez balitz, orden berdina jarraituko litzateke distantzia ez olinpikoetako ontziekin.

Iraupen luzeko probetan berdinketa 1.000mtako abiadura probetarako erabiltzen den orden berdina jarraituko da.

**Lehaketa bateko proba batean:**

Berdinketa izan duten kirolariei puntuazio eta sailkapen berdina emango zaie.

## 30.Art.- Partehartzaileei Argibideak.

Lehiaketa hasi baina bost ordu lehenago gutxienez, behin betiko programak argitaratua beharko du egon, honako xehetasunekin:

a) Ibilbide eta seinaleei dagokien informazio zehatza.

b) Irteera ordua.

c) Irteera lerroa.

d) Helmuga lerroa.

e) Partehartzaileen bularrekoak.

f) Ontzi control mota.

## 31.Art.- Deskalifikazioa.

Lehiakide batek, lehiaketa arauak hautsiz irabazten saiatzen bada, deskalifikatua izango da.

Lehiakide batek, proba baten ondoren buruturiko ikuskaritzan, RFEP-lak hitzarturiko eskakizunak betetzen ez baldin baditu, probatik deskalifikatua izango da.

Debakaturik dago, lasterketan zehar kanpoko laguntza jasotzea.

Debekaturik dago, beste ontzi batek lagunduta egitea ibilbidea, nahiz eta ontzi hori kaleetatik kanpo kokatua egon.

Ezin izango dute, tripulazioek, estropada eremura, beste batzuek jaurtiriko objektuak erabiliz laguntza jaso.

Aipaturiko arau hausteek, inprikaturiko lehiakide/en deskalifikazioa ekarriko du.

Epaile Nagusiak berehala eta idatziz jakinarazi behar du edozein deskalifikazio eta berau eragin duten arrazoiak. Tale buruak txostenaren kopia bat jaso beharko du, non jasotze ordu zehatza beharko du agertu.

Talde buruak ez badu deskalifikazioaren txostenaren koopiarik jasotzen, deskalifikazioa ez da baliogabetzen.

**32.Art.- Serieak eta finalak.**

Serie bakoitzeko ontzi banaketa, zozketa bidez egingo da.

Izenemandako ontzi kopurua, bederatzikoa baino txikiagoa denean, Final-Zuzena ospatuko da. Eta bederatzi baino ontzi gehiagok izena eman ezkero, jarraian agertzen diren F.I.C-eko Araudi Internazionalean agertzen diren taulak aplikatuko dira, Euskadiko Abiadura txapelketarako honako salbuespenak aplikatuz.

KANPORAKETA BURUAK egonez gero, lehiaketako araudi espeziikoaren arabera erregulatuko da.

| LEHIAKIDEAK | SISTEMA | KANPORATZEAK | FINALERDIAK (FE) | FINALAK |
|---|---|---|---|---|
| 10/18 | A | 2X9<br>1/3 finaleral<br>4/7 FE-ra + hurrengo | 1/9<br>1/3 finalera<br>Gainontzekoak | A: 1 x 9 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | BT | kanporatuak | |
| 19/27 | B | 3x9<br>1º finalera<br>2/7 finalerdira<br>Gainontzekoak kanporatuak | 2 x 9<br>1/3 A finalera<br>4/7 + hurrengo BT B finalera<br>Gainontzekoak kanporatuak | A: 1x9<br>B: 1x9 |
| 28/36 | C | 4x9<br>1/6 FE-ra + 3 hurrengo BT<br>Gainontzekoak kanporatuak | 3x9<br>13 A finalera<br>4/6 B finalera<br>Gainontzekoak kanporatuak | A: 1x9<br>B: 1x9 |
| 46 / 54 | E | 6 X 9<br>1/6 FE-ra<br>Gainontzekoak kanporatuak | 4 X 9<br>1/2 + hurrengo BT A Finalera<br>3x3º + 4x4º + 2x5º BT B Finalera<br>2x5º + 4x6º + 3 hurrengo BT C Finalera<br>Gainontzekoak kanporatuak | A: 1 X 9<br>B: 1 X 9<br>C: 1 X 9 |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 55 / 63 | F | 7 X 9<br><br>1/5 FE-ra + hurrengo BT<br><br>Gainontzekoak kanporatuak | 4 X 9<br><br>1/2 + hurrengo BT A Finalera<br><br>3x3º + 4x4º + 2x5º BT<br><br>B Finalera<br><br>2x5º + 4x6º + 3 hurrengo BT<br><br>C Finalera<br><br>Gainontzekoak kanporatuak | A: 1 X 9<br><br>B: 1 X 9<br><br>C: 1 X 9 |
| 64 / 72 | G | 8 X 9<br><br>1/4 FE-ra + 4 hurrengoBT<br><br>Gainontzekoak kanporatuak | 4 X 9<br><br>1/2 + hurrengo BT A Finalera<br><br>3x3º + 4x4º + 2x5º BT<br><br>B Finalera<br><br>2x5º + 4x6º + 3 hurrengo BT<br><br>C Finalera<br><br>Gainontzekoak kanporatuak | A: 1 X 9<br><br>B: 1 X 9<br><br>C: 1 X 9 |

Txapelketak, gehienez ere elkarren segidako lau egunetan zehar ospatuko dira.

Zozketa garaian, serietan banaturiko ontzi kopuruaren diferentzia batekoa izango da. Seriearen arabera, ontzi kopurua ezberdina bada, lehenego serieak izango dira, ontzi gehien izango dituztenak.

Kanporaketa seriean parte hartu ez duen taldea, ez da baimendurik egongo Finalean parte hartzera.

Final edo Final aurreko batetarako sailkatua izan den talde batek, ezin izango du talde osatzen duten taldekiderik aldatu. Serieak eta finalak, distantzia eta ibilbide berdinean ospatu behar dira.

1.000metro baino gehiagoko probetan, ez da kanporaketa serierik egongo eta ontzi guztiek aldi berean hartu beharko dute irteera. Lekuaren zabalerak, partehartzaile guztiek batera parte hartzea galarazten badu, denbora tarte erregularrekin irteera ezberdinak ematea baimenduko da.

## 33.Art.- Serieak eta finalak Euskadiko Abiadura Txapelketarako.

Euskadiko Abiadura txapelketak kanporaketak eta finalak, EKF-tzako Zuzendaritza Batzarrak onarturiko oinarri eta gonbidapenen arabera erregulatuko da.

27 ontzi bano gehiagok parte hartzen duten modalitate eta kategorietan soilik egingo da hautatzea Erlojupekoaren bitartez.

Erlojupeko irteera, dagokion gonbidapen eta oinarrietan ezarriko da modua.

Erlojupekoan burutuko den distantzia, hautatzea egiten ari den probarako berbera izango da.

| | |
|---|---|
| **10 ontzi partehartzaile gehienez:** | **FINAL ZUZENA** |

10 ontzi baino gehiagok parte hartzen ez duten kasuetan, Final bakarra jokatuko da, partehartzaile bakoitzari dagokion kalea zozketa bidez ezarriko delarik.

**“CABEZA DE SERIE” egonez gero, bere sailkapenaren arabera beteko dira plazak**

| | |
|---|---|
| **11 eta 18 ontzi partehartzaile bitartean:** | **1 FINAL** |
| | **2 FINALERDI** |

11 eta 18 ontzi bitartek parte hartzen duten kasuetan, 2 Final-erdi eta Final bakarra jokatuko da.

Finalerdietarako, partehartzaile bakoitzari dagokion kalea zozketa bidez ezarriko delarik.

**"CABEZA DE SERIE" egonez gero, bere sailkapenaren arabera beteko dira plazak**

Finalera, finalerdietako lehenengo lau sailkatuak pasako dira, eta bostgarren denbora honenarekin sailkaturikoa, kaleak modu honetan banatuko direlarik:

| **Finalerdiko sailkapena** | **Finaleko kalea** |
|---|---|
| 1º / 1ª FE | 5 |
| 1º / 2ª FE | 4 |
| 2º / 2ª FE | 6 |
| 2º / 1ª FE | 3 |
| 3º / 1ª FE | 7 |
| 3º / 2ª FE | 2 |
| 4º / 2ª FE | 8 |
| 4º / 1ª FE | 1 |
| 5º DENBORA ONENA | 9 |

<table>
<tr><td rowspan="2">19 eta 27 ontzi partehartzaile bitartean:</td><td>2 FINAL</td></tr>
<tr><td>3 FINALERDI</td></tr>
</table>

Finalerdietarako, partehartzaile bakoitzari dagokion kalea zozketa bidez ezarriko delarik.

**"CABEZA DE SERIE" egonez gero, bere sailkapenaren arabera beteko dira plazak**

Finalera, finalerdietako lehenengo hiru sailkatuak pasako direlarik.

2.Finalera, finalerdi bakoitzean,  4. 5. eta 6. sailkaturikoak pasako direlarik.

Gainontzekoak kanporatuak izango direlarik.

Finalerdietako sailkapenaren arabera, Finalean kaleak modu honetan banatuko direlarik:

| **Finalerdiko sailkapena** | **Finaleko kalea** |
|---|---|
| 1º / 1ª FE | 5 /A FINALA |
| 1º / 2ª FE | 4 / A FINALA |
| 1º / 3ª FE | 6 / A FINALA |
| 2º / 3ª FE | 3 / A FINALA |
| 2º / 2ª FE | 7 / A FINALA |
| 2º / 1ª FE | 2 / A FINALA |
| 3º / 2ª FE | 8 / A FINALA |
| 3º / 1ª FE | 1 / A FINALA |
| 3º / 3ª FE | 9 / A FINALA |
| 4º / 1ª FE | 5 / B FINALA |
| 4º / 2ª FE | 4 / B FINALA |
| 4º / 3ª FE | 6 / B FINALA |
| 5º / 3ª FE | 3 / B FINALA |
| 5º / 2ª FE | 7 / B FINALA |
| 5º / 1ª FE | 2 / B FINALA |
| 6º / 2ª FE | 8 / B FINALA |

| | |
|---|---|
| 6º / 1ª FE | 1 / B FINALA |
| 6º / 3ª FE | 9 / B FINALA |

| | |
|---|---|
| **27 partehartzaile baino gehiago:** | **3 FINAL** |
| | **3 FINALERDI** |

**ERJOKUPEKO SISTEMA**

27 ontzi baino gehiago daudenean, txapelketa osatzen duten probetariko batean, erlojupeko probaren bitartez ezarriko dira gehienez, lehenengo 27 ontzi onenak, dagokien proban parte hartuko dutelarik.

**“CABEZA DE SERIE” egonez gero, bere sailkapenaren arabera beteko dira plazak**

Partehartzaile kopurua alde batetara utzita, erlojupeko probak, patehartzaile bakoitzak finalerdian izango duen kalea ezarriko du, bere sailkapenaren arabera, ezarrriko zaiolarik, jarraian adierazten den taularen arabera:

| Erlojupeko sailkapena | Kalea eta finalerdia |
|---|---|
| 1º | 5 / 1ª FE |
| 2º | 5 / 2ª FE |
| 3º | 5 / 3ª FE |
| 4º | 4 / 3ª FE |
| 5º | 4 / 2ª FE |
| 6º | 4 / 1ª FE |
| 7º | 6 / 2ª FE |

| | |
|---|---|
| 8º | 6 / 1ª FE |
| 9º | 6 / 3ª FE |
| 10º | 3 / 1ª FE |
| 11º | 3 / 2ª FE |
| 12º | 3 / 3ª FE |
| 13º | 7 / 3ª FE |
| 14º | 7 / 2ª FE |
| 15º | 7 / 1ª FE |
| 16º | 2 / 2ª FE |
| 17º | 2 / 1ª FE |
| 18º | 2 / 3ª FE |
| 19º | 8 / 1ª FE |
| 20º | 8 / 2ª FE |
| 21º | 8 / 3ª FE |
| 22º | 1 / 3ª FE |
| 23º | 1 / 2ª FE |
| 24º | 1 / 1ª FE |
| 25º | 9 / 2ª FE |
| 26º | 9 / 1ª FE |
| 27º | 9 / 3ª FE |

Finalerdi bakoitzako lehenengo hiru sailkatuak 1.go Finalera pasako dira.

Finalerdi bakoitzean, 4. 5. Eta 6. Postuan sailkaturikoak, 2. Finalera pasako dira.

Finalerdi bakoitzean, 7. 8. Eta 9. Sailkaturikoak, 3. Fainalera pasako dira.

Finalerako ezarritako kalean, finalerdiko sailkapenaren arabera, taula honek adierazten duen moduan egingo da:

| **Finalerdiko sailkapena** | **Kalea eta Fainala** |
|---|---|
| 1º / 1ª FE | 5 / A FINALA |
| 1º / 2ª FE | 4 / A FINALA |
| 1º / 3ª FE | 6 /A FINALA |
| 2º / 3ª FE | 3 /A FINALA |
| 2º / 2ª FE | 7 /A FINALA |
| 2º / 1ª FE | 2 /A FINALA |
| 3º / 2ª FE | 8 /A FINALA |
| 3º / 1ª FE | 1 /A FINALA |
| 3º / 3ª FE | 9 /A FINALA |
| 4º / 1ª FE | 5 /B FINALA |
| 4º / 2ª FE | 4 /B FINALA |
| 4º / 3ª FE | 6 /B FINALA |
| 5º / 3ª FE | 3 /B FINALA |
| 5º / 2ª FE | 7 /B FINALA |
| 5º / 1ª FE | 2 /B FINALA |
| 6º / 2ª FE | 8 /B FINALA |

| | |
|---|---|
| 6º / 1ª FE | 1 /B FINALA |
| 6º / 3ª FE | 9 /B FINALA |
| 7º / 1ª FE | 5 /C FINALA |
| 7º / 2ª FE | 4 /C FINALA |
| 7º / 3ª FE | 6 /C FINALA |
| 8º / 3ª FE | 3 /C FINALA |
| 8º / 2ª FE | 7 /C FINALA |
| 8º / 1ª FE | 2 /C FINALA |
| 9º / 2ª FE | 8 /C FINALA |
| 9º / 1ª FE | 1 /C FINALA |
| 9º / 3ª FE | 9 /C FINALA |

**1. 3 eta 4 aukeretarako kontsiderazio batzuk (17 partehartzaile baino gehiago, 3 finalerdi eta 2 edo 3 finalekin)**

Bi kirolarik berdintzen badute 3., 6. Eta 9. Postuan finalerdi batean, 10. Kalea gaituko da, berdindutako partehartzaileentzat. Finaleko postuarekiko ezarriko zaio puntuazio jarraia (18 lehenengoak, 2 final egonez gero eta 27 lehenengoak, 3 final egonez gero).

Erlojupekoan berdinketa ematen bada, finalerdietarako gaituko da 10. Kalea, dagokien partehartzaileentzat.

**Azken Xedapenak.**

Araudi honek aurreikusten ez dituen egoera guztiak, Euskal Kanoe Federakuntzako Lehiaketetako Araudi Nagusi eta Teknikoa aplikatuko da.

Araudi honek argitzen ez duen kasuetan, R.F.E.P.-ren eta F.I.C.-ren araudia aplikatuko da.

Araudi hau Eusko Jaurlaritzako Kultura-Gazteria eta Kiroletako Departamentuak onartzen duela jakinarazi eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.